

**IX. LEGEGINTZALDIA**  
**2015-2019 LEGEALDIA**  
**UXUE BARKOS BERRUEZOren**  
**INBESTIDURA-HITZALDIA**  
**(GEROA BAI)**

**ENERGIA**

Azkenik, energia alorrean kanpo dependentzia energetikoa murrizteko lan egitea da gure helburua, energiaren kudeaketan horniketa bermea, kostua eta ingurumen jasagarritasuna diren hiru funtsezko aspektuak kontutan hartuz eta orekatuz.

Horretarako, Nafarroarentzako Energia Plana berraztertuko dugu 2025eko jomugan energia berriztagarrien garapenaren eta energiaren erabilpen zentzudunaren aldeko apustua eginez. Alor honetan kontutan hartu diren neurri ezberdinen artean, datorren Gobernuak energia politika guztia eta klima aldaketa kudeatzeko, erakunde publiko baten sorrera bultzatzea planteatzen du, horrela, besteak beste, orain arte CRANak burutzen zituen funtzioak bere eginez.